



Garondoan

Gorka Bereziartua

Bilduma: Narrazioa

Generoa: Eleberria

Formatua: 14 x 20,50 cm.

Orrialdeak: 314

Koadernaketa: paperezko azala


Argitalpen data: 2026/05/18

ISBN: 978-84-9868-966-2

SALNEURRIA (BEZ gabe): 19,23 €

SALNEURRIA (BEZ barne): 20,00 €

EUSKAL GATAZKA, METALITERATURA,
IDENTITATEA, MEMORIA, AFEKTUAK, WEIRD



Sinopsia

Idazkera hipnotiko eta zirrargarri batekin, Gorka Bereziartuaren *Garondoan* nobelak euskal gatazka bizi izan zuen azken belaunaldiaren ispilu hautsi bat dakar.

“Hogeita zazpi urte neuzkan eta ez nuen inor hil. Ezagutzen nuen gauza bera esan ezin zezakeen jendea”. Liburu arrakastatsu bat argitaratu ondoren, ez aurrera eta ez atzera geratu da nobela honetako protagonista. Bere idazle-ibilbidea zuzendu nahian Donostiara itzuliko denean, ustekabean egingo du topo memorian lurperatuta zeuzkan pertsonekin. Enkontru deserosoak, odol-arrasto lehorrak, amuarrain hilak, beldurra eta xamurtasuna, azaleratu nahi ez duen egia idatziz harrapatzen saiatuko den bitartean. Ezohiko giroetan murgilduko zara Gorka Bereziartuaren lehen eleberri honetan. Galdera interesgarriak ere proposatuko dizkizu: oroitu al dezakegu gure burua, izan ginena fikzionatu gabe? Jakiten ote dugu inoiz nor garen? Nork kontaktzen gaitu?

Egileaz



Gorka Bereziartua Mitxelena (Hernani, 1984)

Kazetaritza ikasi zuen eta *Argia* hedabidearen kultura saila gidatu zuen hainbat urtez. *Ez gara neutralak* saiakeraren bidez (*Argia*, 2019) kazetaritza-proiektu horren filosofia eta praktika zehatzak azaldu zituen. Gaur egun, aktualitateari txirbilak ateratzen saiatzen da zazpi egunean behin argitaratzen duen *Ezetz astea ondo bukatu* zutabearen. Literaturari dagokionez, Kevin Heredia idazle kolektiboko kideetako bat izan zen, Aritz Galarragarekin, Ion Olanorekin eta Beñat Sarasolarekin batera. Berria egunkarian argitaratutako *Irakurlearenak* zutabeak eta *Hor hago, Kevin?* (Meettok, 2010) nobela izan ziren elkarlan horren emaitza. Azken urteetan, Adur Larrea komikigilearekin batera haurrei zuzendutako *Abentura erraldoia* (*Argia*) saila abiatu du; eta *Zer egin Miranderekin?* (Alberdania, 2025) saiakera kolektiboan ere parte hartu du Katixa Dolhare eta Santi Leonérekin batera. Esku artean daukazun *Garondoan* du estreinako nobela.